


musika-kontserbatorioak

2016ko abuztuaren 26an

Hego Euskal Herriko Musika-kontserbatorio nagusiak (hiriburuetakoak):

 <p>Conservatorio Profesional de Música FRANCISCO ESCUDERO Musika Kontserbatorio Profesionala</p>	<p>Francisco Escudero Musika-kontserbatorio Profesionala. Easo kalea 45. 20006 Donostia 943 466488 / oficina@conservatorioescudero.eus</p>
 <p>Conservatorio de Música Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorioa</p> 	<p>Juan Crisóstomo de Arriaga Musika-kontserbatorioa. Ibarrekolanda 1. 48015 Bilbo 944 157888 / oficina@conservatoribilbao.com</p>
 <p>Conservatorio de Música Jesús Guridi Musika Kontserbatorioa</p>	<p>Jesús Guridi Musika-kontserbatorioa. Konstituzioaren plaza 9. 01009 Gasteiz 945 282400 / info@conservatoriovitoria.com</p>
<p>Pablo Sarasate Musika-kontserbatorio Profesionala. Musikaren Hiria. Antonio Pérez Goiena pasealekua 1. 31008 Iruñea 848 421116 / cm.pablosarasate@educacion.navarra.es</p>	

Musika-eskolan ikasitakoa 'ofizializatzeko' modua ematen du musika-kontserbatorio batean izena emateak (irakaskuntza arautua da kontserbatorioetako). Musika-eskolek musika-zaletasunaren alde egiten duten lanaren eta Musikene bezalako goi-mailako musika-ikastegiak profesionalizazioaren alde egiten dutenaren arteko erdibide modukoa izango litzateke kontserbatorioek ahalbidetzen dutena (Musikenek emandako goi-mailako tituluak lizentziatu-tituluaren edo unibertsitate-gradu baliokidearen izaera du, eta irakasle izateko gaikuntza ematen du, besteak beste | musikene.eus). TOBERA Musika-eskolak aurten egindako Bazkideen Batzar Orokorrean musika-kontserbatorioen inguruko informazio orokorra familien artean zabaltzeko jasotako eskaerari erantzutera dator honako argibide-orria. Gipuzkoan, Irungo Erdi-mailako Udal Kontserbatorioa (Mendibil parkea. 20300 Irun. 943 505710 / conservatorio@irun.org) eta Errenteriako Errenteria Musikal Udal Kontserbatorio Profesionala ere badaude (Alfonso XI kalea, z.g. 20100 Errenteria. 943 449633 / musikal@errenteria.eus). TOBERAgandik fisikoki gertuen dagoen musika-kontserbatorioa Donostiako Francisco Escudero denez, beraiekin egin du zuzeneko harremana TOBERAk, eta segidan dituzue jasota hainbat xehetasun erabilgarri eta praktiko, TOBERAtik harago, musikaren ikaskuntzan sakonago murgiltzeko aukeren berri izan dezazuen eta kontserbatoriora jauzi egiteko suspargari gerta dakizuen, beldurrak uxatuta.



Era berean, orriotako eskema laburra oinarri hartuta, zehaztapenatarako, jakinarazten dizuegu kontserbatorioen webguneetan informazio osatua duzuela. Donostiakoari dagokionez, urtero, martxo-aldera, ate irekien saioak eta hitzaldiak antolatzen dituzte interesatuei azalpenak emateko.

2 nibel eta 10 maila

1 Oinarrizkoa

Oinarrizko irakaskuntza 8 eta 14 urte-bitarteko ikasleentzat da, eta 4 maila ditu. Jakinarazi digutenez, Oinarrizko maila “espedienterako baina” ez da. TOBERA Musika-eskolako 2. nibel-amaierako Diplomaren pareko litzateke. Irakaskuntza Profesionalek, berriz, orkestra ofizialetan jotzeko titulazioa ahalbidetzen dute (titulu profesionala edo lanbide-titulua), baina ez musikako irakasle izatekoa. Irakasle izateko gaikuntza eskuratzeko, horretarako eskumena duen Eusko Jaurlaritzak diseinatutako ikastaro osagarri bat egin beharko luke gainera ikasleak. Gaur da eguna, ordea, Jaurlaritzak halakorik bideratu ez duena oraindik, eta, beraz, “hutsune legala” dago ildo horretan: izan ere, aparteko ikastaroa existitu ezean, irakasle izateko bidea eragozten zaie kontserbatorioko ikasketak gainditu dituztenei, eta legeak jasotakoa kamuts uzten da. Dena den, kontserbatorioko zikloa amaitu duten ikasle batzuk ari direla musika-eskolatan eskolak ematen esan digute.

2 Profesionala

Irakaskuntza Profesionaletan (lehen “erdi-mailako” deitzen ziren horietan) aritzeko, aldiz, ez dago adin-mugarik. Funtsean, 12 eta 18 urte-bitartean egiten dira ikasketak hauek, hau da, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasketak orokorrekin bat etorritik. 6 maila dira. Maila profestionaleko ikasketak egin ahal izateko, ez da derrigorrezkoa oinarrizko maila egina izatea. Gaur egun ez dago Gipuzkoan aukerarik musika-batxilergoa egiteko, Donostiako Kontserbatorioak Gros auzoko Zubiri-Manteo BHI institutuarekin lankidetzan garai batean indarrean izandako akordioa eten zenetik (musika-batxilergoak batxilergoko ikasketak orokorrak eta musika-ikasketak uztartzen ditu, eta kontserbatorioko ikasketak batxilergoarekin parekatzen ditu, ondorioz). Orientaziorako, maila profestionaleko 4. maila TOBERA Musika-eskolako 3. nibel-amaierako Diplomaren pareko litzateke, gutxi gorabehera.

Sarrera-probak

Libretik aurkezterik ez dago musika-kontserbatorioko azterketetara. Kontserbatorioan egiten diren azterketek kontserbatorioan sartu nahi duten ikasleen maila egiaztatzeko bakarrik balio dute; hau da, sarrera-probak dira, baina ez dute ezagutzarik kreditatzen. Ondorioz, proba gainditzea ez da maila jakin horretako titulazioaren baliokide, eta, titulazio ofiziala eskuratzeko, kontserbatorioan bertan egin behar dira ikasketak ezinbestean.

Sarrera-probak (teorikoak + praktikoak) egin ahal izateko, ikasle hautagaiak zein mailatarako eta zein espezialitatearako egin nahi dituen adierazi beharra dauka, eta horren arabera prestaketa ekarri. Azterketa gainditu eta hautatua baldin bada bakarrik egin ahal izango ditu ikasketak kontserbatorioan, aurkeztu den mailan.

(*) Espezialitatearen arabera, sarrera-probetan egin beharreko ariketak eta asteko dedikazioa aldatu egiten dira. Hauek dira Donostiako Kontserbatorioan gaur egun eskaintzen diren espezialitateak: akordeoia, baxu elektrikoa, biola, biolina, biolontxelo, fagota, flauta, gitarra, gitarra elektrikoa, harpa, kantua, klabezina, klarineta, kontrabaxua, oboea, organoa, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronboia, tronpa, tronpeta, tuba eta txistua. Banda, orkestra edo korua bezalako taldeak ere badituzte eskaintzaren barruan, ikasketaren osagarri. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen diren dantzaren ikasketak ofizialak oinarrizko mailakoak dira soilik.

1 Oinarrizkoa

Gaitasun-proba	idatzizkoa	<ul style="list-style-type: none"> Entzumena Azentuazioa Erritmoa 	Proba hauen emaitzen arabera, maila erabakiko da.
	ahozkoa	<ul style="list-style-type: none"> Abestea: prestatutakoa + entzundakoa errepikatuz Erritmoak imitatzea 	
Musika-hizkuntza			
Musika-tresna (baldin eta instrumenturen batean ezagutzarik duen)*	<ul style="list-style-type: none"> Eskalak, obrak edota ariketak 		

TEORIA Musika- hizkuntza	1. maila 2. maila 3. maila	idatzizkoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Diktaketa erritmikoa ▪ Diktaketa melodikoa ▪ Partitura baten analisisa 	
		ahozkoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erritmoa eta irakurketa ▪ Entonazioa 	
	4. maila 5. maila	idatzizkoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Partitura baten analisisa ▪ Harmonia-ariketak 	
		ahozkoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erritmoa eta irakurketa ▪ Entonazioa pianoaz lagunduta 	
	6. maila	idatzizkoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Partitura baten analisisa ▪ Harmonia-ariketak: konposizioa osatu/melodiaren moldaketa egin. 	
		ahozkoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erritmoa eta irakurketa ▪ Entonazioa pianoaz lagunduta 	
		Musikaren Historia	idatzizkoa	
		ahozkoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erritmoa eta irakurketa ▪ Entonazioa pianoaz lagunduta 	
	PRAKTIKA Musika-tresna [espezifikoa]*	1., 2., 3., 4., 5. eta 6. mailak	Ariketa teknikoak Interpretazioa	Ikus musika-tresna bakoitzerako ezarritako plangintza

Eskola-orduak, astean


Irakaskuntza Profesionaleko irakasgaikako* asteko ordu-kopuruak behatuta, honako orientazio-taula osatu dugu mailaz maila, ikasleek astero dituzten eskola-orduen berri emateko:

1. maila 2. maila	5,5 eta 6,5 ordu-bitarte astean
3. maila 4. maila	4,5 eta 7 ordu-bitarte astean
5. maila 6. maila	7,5 eta 9,5 ordu-bitarte astean

Webgunean daude espezialitate bakoitzerako ikasketa-planak, irakasgaiak, sarrera-proben ereduak, ebaluazio-irizpideak, programazioa (oinarrizkoa/profesionala berezita, mailaka, irakasgaika...), irakasleak, asteko ordu lektiboak...

Informazio honen osagarri bikaina duzue TOBERA Musika-eskolak 2005ean argitaratutako *Musikaren irakaskuntza TOBERA Musika-eskolan hasten da. Begira zer egin dezakezun ondoren* liburuxka. Ale bat nahi izanez gero, eskatu tobera@tobera.org helbidean. Azalpen gehigarriak beharko bazenitu, prest gaituzu TOBERAn laguntzeko.

prest bazaude, TOBERAn prestatuko zaitugu




conservatorios de música

26 de agosto de 2016

Principales Conservatorios de Música de Hego Euskal Herria (capitales):

 <p>Conservatorio Profesional de Música FRANCISCO ESCUDERO Musika Kontserbatorio Profesionala</p>	<p>Conservatorio Profesional de Música Francisco Escudero. Calle Easo 45. 20006 Donostia 943 466488 / oficina@conservatorioescudero.eus</p>
 <p>Conservatorio de Música Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorioa</p> 	<p>Conservatorio de Música Juan Crisóstomo de Arriaga. Ibarrekolanda 1. 48015 Bilbo 944 157888 / oficina@conservatoriobilbao.com</p>
	<p>Conservatorio de Música Jesús Guridi. Plaza de la Constitución 9. 01009 Vitoria-Gasteiz 945 282400 / info@conservatoriovitoria.com</p>
<p>Conservatorio Profesional de Música Pablo Sarasate. Ciudad de la Música. Paseo Antonio Pérez Goiena 1. 31008 Iruñea-Pamplona 848 421116 / cm.pablosarasate@educacion.navarra.es</p>	

La inscripción en un Conservatorio de Música ofrece la posibilidad de oficializar lo aprendido en una Escuela de Música, puesto que la enseñanza en los Conservatorios es reglada. Los conservatorios actúan a modo de puente entre la labor que las musika-eskolas realizan para formar aficionados a la música y descubrir vocaciones y la que realizan centros superiores de música como Musikene a favor de la profesionalización (los títulos superiores emitidos por Musikene son equivalentes a todos los efectos a una licenciatura o al título de grado universitario equivalente, y habilitan al receptor como docente, entre otros | musikene.eus). Esta hoja informativa pretende dar respuesta a la solicitud efectuada en la Asamblea General de Socios de TOBERA Musika-eskola de este año, de repartir entre las familias información general sobre conservatorios de música. En Gipuzkoa existen otros 2 centros, además de los señalados más arriba: el Conservatorio Profesional Municipal de Irun (Parque Mendibil. 20300 Irun. 943 505710 / conservatorio@irun.org) y el Conservatorio Profesional Municipal Erreterria Musikal de Erreterria (calle Alfonso XI, s/n. 20100 Erreterria. 943 449633 / musikal@erreterria.eus). Dado que el conservatorio de música más cercano a TOBERA en términos geográficos es el centro Francisco Escudero de Donostia, TOBERA ha contactado directamente con ellos, y seguidamente os aportamos concreciones útiles y prácticas para que conozcáis las posibilidades que, más allá de TOBERA, existen para profundizar en el aprendizaje musical, y os sirva como acicate para dar el paso al conservatorio, dejando de lado posibles miedos y dudas.



Del mismo modo, tomando como base el breve esquema que esbozamos aquí, os comunicamos que a través de las páginas web de los distintos conservatorios podéis acceder a información concreta y completa. En lo que respecta al conservatorio de Donostia, además, todos los años hacia marzo acostumbran a realizar unas jornadas de puertas abiertas y reuniones para atender consultas de todo aquel que esté interesado.

1

Elemental

Las Enseñanzas Elementales van dirigidas a alumnado de entre 8 y 14 años, y cuentan con 4 cursos. Según nos han comunicado, este nivel de enseñanza no sirve “más que para que conste en el expediente”. Serían equiparables al Diploma de 2º nivel de TOBERA Musika-eskola. Las Enseñanzas Profesionales, en cambio, dotan de titulación para tocar en orquestas oficiales (son títulos profesionales), pero no para trabajar como profesor. Para conseguir una habilitación que permita dedicarse a la docencia, el alumnado debería, además, realizar un curso complementario diseñado por el Gobierno Vasco, que es quien tiene competencia para ello. No obstante, hoy por hoy, el Gobierno Vasco no ha desarrollado aun tal diseño, y, en consecuencia, existe un “vacío legal”, puesto que, mientras no exista ese curso extra, se les impide la labor docente a aquellas personas que han aprobado los estudios en el conservatorio, dejando así sin efecto lo recogido por ley. En cualquier caso, nos han confirmado que hay ex-alumnado que ha acabado el ciclo del conservatorio y da clases en musika-eskolas.

2

Profesional

Las Enseñanzas Profesionales (las que antes se denominaban “de grado medio”) no tienen límite de edad, aunque se cursan básicamente entre los 12 y los 18 años, correspondiendo con la Educación Secundaria y el Bachiller. Las conforman 6 cursos. Para acceder a este nivel no es necesario haber cursado previamente el grado elemental. En la actualidad, y desde que expirase el acuerdo existente a este fin entre el conservatorio de Donostia y el instituto Zubiri-Manteo del barrio de Gros, no existe en Gipuzkoa posibilidad de realizar bachillerato musical (el bachillerato musical aunaba las enseñanzas generales de bachillerato con las de música, y, en consecuencia, se equiparaban los estudios en el conservatorio con los del bachillerato). Como orientación, el 4º curso del nivel profesional se correspondería con el Diploma de fin del tercer nivel de TOBERA Musika-eskola, aproximadamente.

Pruebas de acceso

No existe la posibilidad de presentarse por libre a los exámenes del conservatorio de música. Los exámenes que se realizan en el conservatorio solo sirven para verificar el nivel del alumnado aspirante a acceder al conservatorio en cuestión; es decir, son pruebas de acceso, pero no acreditan de modo ninguno un determinado nivel de conocimiento. Por lo tanto, aprobar la prueba no es equivalente a la titulación correspondiente a ese curso concreto, y, para obtener la titulación oficial, es imprescindible realizar los estudios conducentes a la misma en el propio conservatorio.

Para poder realizar las pruebas de acceso (teóricas + prácticas), el alumnado candidato ha de especificar a qué curso y especialidad aspira, y someterse a los requerimientos concretos correspondientes. Solo si aprueba y es seleccionado podrá cursar en el conservatorio el curso para el cual se ha presentado.

(*) Los ejercicios a realizar en las pruebas de acceso y la carga lectiva semanal varían dependiendo de la especialidad elegida por el alumnado. Estas son las especialidades que en la actualidad oferta el conservatorio de Donostia: acordeón, bajo eléctrico, viola, violín, violonchelo, fagot, flauta, guitarra, guitarra eléctrica, arpa, canto, clavecín, clarinete, contrabajo, oboe, órgano, percusión, piano, saxofón, trombón, trompa, trompeta, tuba y txistu. También incluyen agrupaciones como banda, orquesta o coro, a modo de complemento a la enseñanza principal. Actualmente, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, solo se pueden cursar estudios oficiales de Danza de grado elemental.

1

Elemental

Prueba de aptitud	escrita	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Audición ▪ Acentuación ▪ Ritmo 	
	oral	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Cantar: una canción previamente preparada + repitiendo lo escuchado ▪ Imitar ritmos 	
Lenguaje Musical			En función de los resultados de estas pruebas, se (re)establece el curso.
Instrumento (en el cual ya posean cierto nivel)*	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Escalas, obras y/o estudios 		

TEORÍA Lenguaje Musical	Curso 1º Curso 2º Curso 3º	escrita	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Dictado rítmico ▪ Dictado melódico ▪ Análisis de una partitura 	
		oral	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ritmo y lectura ▪ Entonación 	
	Curso 4º Curso 5º	escrita	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Análisis de una partitura ▪ Ejercicios de armonía 	
		oral	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ritmo y lectura ▪ Entonación con ayuda de piano 	
	Curso 6º	escrita	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Análisis de una partitura ▪ Ejercicios de armonía: completar composición/arreglos. 	
		oral	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ritmo y lectura ▪ Entonación con ayuda de piano 	
		escrita		
		Historia de la Música	<ul style="list-style-type: none"> oral ▪ Ritmo y lectura ▪ Entonación con ayuda de piano 	
	PRÁCTICA Instrumento [específico]*	Cursos 1º, 2º, 3º, 4º, 5º y 6º	Pruebas técnicas	} Consultar la planificación estipulada para cada instrumento musical
	Interpretación			

Carga lectiva semanal

Analizando las dedicaciones semanales establecidas para cada especialidad* en las Enseñanzas Profesionales, hemos elaborado esta tabla-resumen orientativa por cursos, a fin de dejar constancia del número de horas lectivas que el alumnado recibe semanalmente:

Curso 1º Curso 2º	Entre 5,5 y 6,5 horas a la semana
Curso 3º Curso 4º	Entre 4,5 y 7 horas a la semana
Curso 5º Curso 6º	Entre 7,5 y 9,5 horas a la semana

Se pueden consultar en la página web del conservatorio los planes de estudio para cada especialidad, las asignaturas, modelos de pruebas de acceso, los criterios de evaluación establecidos, las programaciones (tanto para grado elemental como para profesional, por cursos, asignaturas...), el profesorado, la carga lectiva exacta...

Os será también de utilidad la guía que bajo el título *La enseñanza musical arranca en TOBERA Musika-eskola. Mira qué puedes hacer después* publicó en 2005 TOBERA Musika-eskola. En caso de querer un ejemplar, solicitadlo escribiendo a la dirección tobera@tobera.org. Tenéis a TOBERA a vuestra disposición para todas aquellas aclaraciones que os fueran precisas.

si estás dispuesto, estamos preparados